

EUSKAL AEKO KANPO-MERKATARITZAREN ESTADISTIKAK (KAMEE), 2012KO 3. HIRUHILEKOA

Euskal AEko esportazioak %9,7 murriztu ziren 2012ko hirugarren hiruhilekoan

Inportazioak %3,9 gutxitu ziren aldi berean

Euskal AEko esportazioak: %9,7 nominal batez murriztu ziren 2012ko hirugarren hiruhilekoan, EUSTATEN datuen arabera. Guztirakoa, 4.752 milioi euro, iazko ia 5.263 milioien aldean. Hirugarren hiruhilekoko murrizketa honekin, 2012ko lehen bederatzi hiletako tasa metatua %-2,6 da.

Euskal AEko inportazioak: %3,9 jaitsi dira nominalki, 3.985 milioi euro lehen hiruhilekoan. Inportazio ez-energetikoak bakarrik, 2.419 milioi, hartzen badira kontuan, aldi berean gehiago (%-9,9) murriztu ziren; . Urteko lehen bederatzi hiletako metatua negatiboa da, %-12,5 aurreko urteko aldi beraren aldean; inportazio ez-energetikoetan, %-8,9.

Euskal AEko kanpo-merkatutzaren bilakaera. 2011-2012, hirugarren hiruhilekoa. Milaka eurotan


	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila-Iraila			Uztaila-Iraila		
	2011	2012	Δ %	2011	2012	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	5.262.881	4.752.017	-9,7	4.147.631	3.984.871	-3,9
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	524.577	558.718	6,5	1.462.153	1.566.179	7,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.738.304	4.193.300	-11,5	2.685.479	2.418.692	-9,9
ARABA / ÁLAVA						
GUZTIRA	1.475.719	1.155.350	-21,7	665.578	556.880	-16,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	527	811	53,9	5.756	9.449	64,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.475.192	1.154.539	-21,7	659.823	547.432	-17,0
BIZKAIA						
GUZTIRA	2.169.542	2.079.384	-4,2	2.690.726	2.702.026	0,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	515.685	551.499	6,9	1.446.510	1.548.024	7,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.653.857	1.527.885	-7,6	1.244.215	1.154.001	-7,3
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.617.620	1.517.283	-6,2	791.328	725.965	-8,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	8.365	6.407	-23,4	9.887	8.706	-11,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.609.255	1.510.876	-6,1	781.441	717.259	-8,2

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkatutzako estatistikak

Hirugarren hiruhilekoan **saldo garbia** (esportazioak ken inportazioak) positiboa izan da: 767 milioiko **superabita**; esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa, %119,3. Halere, inportatutako eta esportatutako produktu energetikoak bazter utzita, **merkatal saldo ez-energetikoak** 1.775 milioiko superabita du, 2011ko hirugarren hiruhilekoan baino 278 milioi gutxiago. Estaldura-tasa ez-energetikoa 2011ko %176,4tik 2012ko %173,4ra pasatu da.

Euskal AEko kanpo-merkatutzaren bilakaera. Urte arteko hazkunde-tasak

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. Urte arteko hazkunde tasak



Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Europar Batasuna helburu duten **esportazioak** %18,6 murriztu dira 2012ko hirugarren hiruhilekuan 2011ko aldi beraren aldean. Nabarmentzekoak dira bai bolumen, bai urte arteko murrizketagatik ondokoak: Frantzia (%-9,4), Alemania (%-16,4), Italia (%-34,7) eta Belgika (-47,4). Bolumen handienekoen artean, tasa positiboa Erresuma Batuak bakarrik du (%1,8). 27EBtik kanpo, hazkundeak esportazioetan: Estatu Batuak (%24,0), Mexiko (%40,5); Venezuela (%48,5), eta Turkia (%3,3). Jaitsierak ondokoetarako esportazioetan: Txina (%-41,1) eta Brasil (%-1,2).


Europar Batasunetiko **inportazioak** %2,5 murriztu ziren, garrantziagatik eta urte arteko jaitsieragatik nabarmentzen dira: Alemania (%7,4) eta Frantzia (%12,7). Hazi dira, berriz, ondokoetatik eginikoak: Italia (%3,5), Herbehereak (%50,5), Erresuma Batua (%38,1) eta Belgika (%8,2). Munduko gainerakotik: Errusiatik (%34,1), Mexikotik (%414,1) eta Venezuelatik (%1.866,4) eginiko inportazioak hazi egin dira; eta murriztu Estatu Batuetatik (%-29,25) eta Txinatik (%-13,5). Irlandik eginikoak aparteko kasua dira: 560 milioitik 4ra. (%-99,3).

Muga-zergen sekzioen arabera, esportazioez, *Produktu mineralak* (%6,5) eta *Material elektrikoa* (%8,0) nabarmentzen dira, dinamikoenak pisurik handienekoen artean. Gainerako sekzio garrantzitsuetan: *Metalak eta beren manufakturak* (%0,0), *Garraio materiala* (%-22,6), *Kautxu eta plastikoak* (%-45,2).

Inportazioetan *Produktu mineralak* nabarmentzen dira, %7,1 hazi dira, gure inportazio guztien %39,3. *Material elektrikoan* hazkunde txikia dago (%0,9); gainerako sekzio garrantzitsuetan jaitsierak: *Plastikoak eta kautxua* (%-32,2), *Produktu kimikoak* (%-15,9), *Metalak eta beren manufakturak* (%-6,7), *Garraio-materiala* (%-3,8).

Esportazio-murrizketarik handiena **Arabian** izan da. Murrizketa %21,7 izan da 2012ko hirugarren hiruhilekoan, batez ere muga-zergen sekzio pisutsuenean agertzen delarik: *Garraio-materiala* %-37,1; *Metalak eta beren manufakturak* %-4,2, *Plastikoak eta kautxua* %-56,4. *Material elektrikoarenak* hazi egin dira, %36. Arabako inportazioak %16,3 murriztu ziren: *Metalak eta beren manufakturak* (%-29,1), *Material elektrikoa* (%-3,5).

Euskal AEko kanpo-merkataritza. Hileko datuak (Joera)



Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo merkataritzaren estatistika

Bizkaiko esportazioak %4,2 murriztu dira aurreko urteko aldi beraren aldean. Murrizketa, batez ere, *Plastikoak eta kautxua* (%-40) izandakoagatik izan da. Izan ere, gainerako garrantzitsuetan hazkundeak ditugu, baina ez beherako joera konpentsatzeko lain. *Metalak eta beren manufakturak* %15,6 hazi dira, *Produktu mineralak* %6,9; bi sekzio hauen artean lurraldeko esportazioen %54 dugu. Bizkaiko inportazioak %0,4 hazi dira 2011ko hirugarren hiruhilekoaren aldean. *Produktu mineralak* (%7,0), *Material elektrikoa* (%6,3); *Metalak eta beren manufakturak* (%2,3); *Plastikoak eta kautxua* (%-43,1).

Gipuzkoako esportazioak %6,2 murriztu dira. *Garraio-materiala* (%-5,3), *Metalak eta beren manufakturak* (%-16,4). *Material elektrikoan* %5,9ko igoera Inportazioak %8,3 murriztu ziren. *Material elektrikoa* (%-1,0) *Metalak eta beren manufakturak* (%-4,6); ia sail guztietan jaitsierak ditugu.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.:+34-945-01 75 13 Faxa:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua